

# Ternua

## Balezaleek utzitako ondarea

ALBERTO BARANDIARAN XABI OTERO



**Kanadara abiatuko gara. Atlantikoko kostan euskaraz egin zuten-eta.**

**G**auzak zer diren, kanpokoek erakutsi zigten Ternuan eta Labradorren zer zegoen.

Duela hogeita hamar urte, Shelma Huxley historialari kanadarrak xvi. mendeko agiri bat aurkitu zuen Oñatiko artxi-boko paperen artean. San Joan naoko patroien aurka Orioko bi anaiak jarritako salaketaren idazkia zen. Bi arpoilariak kexu ziren, baleontzia Ternua parean hondoratu eta gero, irabazien banaketa trakets egina zegoelakoan.

Notarioaren aurrean barkuaren kokapen zehatza eman behar izan zuten bi aldeek, eta, datuoi esker, Kanadako arkeologia talde bat itsasontziaren bila jarri zen Red Bayn, Labrador eta Ternua artean. Hasi eta gutxira, munduan ur azpian aurkitutako ontzirik zaharrena eta osatuena topatu zuten: San Joan naoa. Haiek gabe, gaur egun ez genituzkeen horren zehatz ezagutuko Kanadako itsasbazterretan aritu ziren euskaldunen ibilerak. (Inguru latza da Labrador eta Ternua arteko hura. Negu gorrian, jasangaitza. Hotza eta izotza).

Red Bayko indusketei esker, gaur egun badakigu xvi. mendean euskaldunek balea ehizatzen zutela Kanadako ekialdean. Badakigu udaberritik aurrera mila lagun baino gehiago aritzen zirela hango kostan

beharrean, upelgile, arpoilari, arrantzale eta arotzak tartean. Badakigu harremanak izan zituztela bertakoekin, eta badakigu Europako beste nazioetako barkuak iritsi zirenean, euskaldunen eskarmentutik ikasi behar izan zutela.

Gaur egun, barkuak desagertu dira Red Baytik. Baina ondarea geratzen da. San Joan ontzia, esaterako, xehetasun guztiz. (Itsas bazterreko etxetxoak kolore bizikoak dira, zeruaren grisari desafio egin nahian edo. Errepideetan, altzeak daudela iragartzeko, Original idazten dute. Orein euskal izenetik bide dator).

### "Biziarengatik dugu irriskatzen bizia"

*"Guri ere ekarguzu hurbillera Balea / segurkiago amaren landatzeko kolpea / biziarengatik dugu irriskatzen bizia / arren egiguzu haren gelditzeko gratia".*

Joanes Etxeberri Ziburukoaren Manual Devotionezcoa liburuan agertzen diren otoiak eta aipuak izan dira, mendeetan, Ternuan eta Labradorren aritu ziren euskaldunen ahozko ondare ia bakarra. Hor, xvii. mendeko toponimia ere irakur daiteke: Punta mehea, Punta arrassoa, Baleetako baia, Arzansko irla, Barratxo...

Hizkuntzalariek euskal arrantzaleen doinua aditu dute gaurko izen askotan, baina urteek grafia ordezkatu dute. Portutxo hori, Port au Choix da gaur egun; Aingura txar, Ingornachoi; Ferrol zaharra, Old Ferrolle; Punta mehea, Longue Pointe.

Bestetik, Kanadako ipar ekialdeko amerindiarrekin ere trukerako hitzak adostu beharko zituzten euskaldunek. Adituek ondorioztatu dute *ania* (anaia), *kessona* (gizona) edo *atouray* (atorra) hitzak duela oso gutxi arte erabili zituztela bertakoek. Esaterako, Mi kmaq indioek. Amaitzeko gogora dezagun "Zer moduz?" galderari indioek ikasi zuten erantzun ironikoa: "Apaizak hobeto!".





Indusketek erakutsi dute San Joan naoak 205 tona garraiatzeko ahalmena zuela, eta 800 upel sartzzen zirela sotoan. 50 marinelentzako tokia zuela, eta masta nagusia 23 metro luze zela, eta hiru zubi zituela, goitik behera.

Badakigu ekaitz bortitz batek hantxe harrapatu zuela betiko, baina nagusiek, udaberrian izotza desegiten hasi zenean, balearen olioaz betetako hainbat upel berreskuratu ahal izan zutela. Eta badakigu gutxienez bi arpoilari kexu agertu zirela irabazien banaketa zela eta.



Eta auzia abiatu zutela gero, Euskal Herrian. (Ekaitz gogorak ustekabean iristen dira. Bertako biztanleak, neguan, bildu egiten dira, eta barrualdera emigratzen dute, eta yubarta baleek muturra erakusten dute olatuen gainetik).

Kanadako arkeologoek ez dute bakarrik San Joan ontzia berreskuratu. Urpetik atera dituzte arpoilariak erabiltzen zituzten txalupak ere, eta beste hiru nao. Eta haien lanari esker, orain badakigu balea ogibide bihurtu zuten marinel haien bizimoduaz lehen ez genekien gauza asko.

Badakigu, esaterako, euskaldunek arrastoa utzi zutela hango herrien ahozko tradizioan. Leiendetan, eta hiztegian. Gaur egun, barkuak bezala, hitz gehienak desagertu egin dira haien ahotik. Oroimena, ordea, ez.

**Quebecen euskalduneko toponimia maiz azaltzen da. Basque, euskaldunen presentzia salatzen duen izen frantsesa ohikoa da.**

**RED BAYEN** BAKAILAOTAN IBILITAKO ARRANTZALEAK PORTURATZEN. BERTON ARRAINA LEHORTUKO DA. **BELLE ISLEKO** ITSASARTEAN ICEBERG BAT.

#### BIDAIA-GIDA

Red Bayn gordetzen dituzte, gaur egun, urpetik ateratako pitxarrak, ontziak, arropa zatiak eta euskal arrantzaleekin lotutako beste lekukotasun ugari. Baita San Joan naoaren, eta sabelean zeramatzan txalupen erreplikak ere.